



GRAND PLACE “JUSTICIA” ALDIZKARIAREN AURKEZPENA

10.ZK. – LA JUSTICIA

**(Bizkaiko Batzar Nagusiak –Bilbao)
2019-03-28**

Jaun/andreok Arratsaldeon guztioi. Berriro ere, Mario Onaindia Fundazioari eskertu nahi diot zuengana zuzendu ahal izateko eman zaidan aukeragatik.

Aldi honetan are eta eskertuagoa sentitzen naiz mahaian lagun ditudan pertsonengatik, Justiziarekin lotutako pertsona gailenak guztiak, nekez gainditu daitezkeenak: Juan Luis, Paloma, Diego, Manuel, José María baita Grand Place-ko zuzendari Feliperi ere, besakada bat.

Eta nire eskerrik beroena adierazteko bigarren arrazoia, hona ekarri gaituena da: Justiziar buruzkoa den zerbaki baten aurkezpena.

Grand Place-ren jarraitzaile puntuala naiz; pentsamenduaren eta kulturaren inguruko aldizkari bat da hau, hamargarren zerbakira iristeko gai izan dena: garrantzizkoa, gainera, zerbaki ordinala izateagatik ez ezik, artikuluen kalitateagatik ere; beste askoren artean, ekologia, lan-munduaren etorkizuna, ekonomia orokorrean, ezkerria edo identitatea aztergai izan dituzten artikulua, betiere zehatzak eta sakonak benetan.

Halako argitalpenetan nekez iritsi daiteke hamargarren zerbakira, baina kalitatean, are eta zailagoa da hamar hori lortzea.

Eskertzekoa da zerbaki hau justiziar buruzkoa izatea, eta nire ustez oso onuragarria botereen banaketan –horietako bat judiziala dela kontuan hartuta– oinarritzen den sistema demokratiko baten funtzionamenduaz kezkatuta dauden pertsona guztientzat.

Nire erantzukizun instituzionalagatik, nik hornitu behar ditut baliabide materialak eta pertsonalak Justizia Administrazioak herritarrentzat modu arin eta hurbil batean funtzionatu dezan, baina betiere bere autonomia errespetatuz. Hala, gogoz hartu dut benetan gonbidapen hau, zuekin kontaktu hau izateko aukera bat delako gainera.

Justizia administrazioarekin dudan harremana iraunkorra eta zuzena da; horregatik, aztertutako gaiak oso hurbilekoak eta ezagunak ditut; gainera, gai horietako asko etengabeko kezka dira, egunerokotasunean eta modu koordinatu batean erantzun behar izaten diegunak.

Une historiko honetan, populismoen eta elementu erreakzionarioen aldetik gure zuzenbidezko estatuaren oinarriak zalantzan jartzen ari diren une honetan, ongiatorria

egin behar zaio Mario Onaindia Fundazioaren esfortzu honi. Bulkada horien aurrean amore emateko baino, argumentuekin haiei aurre egiteko eta garaitzeko unea baita hau.

Zenbakiak ez die heltzen, aurkezpenean ondo adierazi bezala, justiziaren alderdi guztiei; bai, ordea, gailenetako askori: gizartearen konfiantza justizian eta gainerako instituzio demokratikoetan; jurisdikzio independenteak betetzen duen funtsezko papera demokraziaren berme gisa Konstituzioan eta Europar Batasunean; botere judizialaren beharrezko auto-limitazioa eta bere funtzioa askatasunak definitutako komunitate baten zerbitzura.

Elkarren segidako kolaborazioek heltzen dieten gaien artean daude: botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren legitimazio-arazoak, gatazken ebazpen ez judizialaren ahalbideak, indemnizazioak espetxeratze bidegabeagatik, jurisdikzio penalaren deriba baten arriskuak, hausnartu gabea eta balio konstituzionaletik aldendua dela kontuan hartuta.

Genero-ikuspegiari ere heltzen zaio jurisdikzioaren jardunean, baita berdintasuna lortzeko bide luzeari ere judikaturan.

Hizpide izan ohi ditugun gaiak dira guztiak, kezkatzen gaituztenak eta bai botere judizialak bai exekutiboak aztergai ditugunak.

Poztu egiten nau benetan gure egitekoaren egunerokotasunean parte diren hausnarketak eta egoerak argitalpen honetan aurkitzeak.

Nabarmendu egin nahi dut egiten duen ekarpena Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu idazkariak, Begoñak eta hiru idazkari koordinatzaile probintziales, Raquelek, Blancak eta Arantzak, arreta handiko hausnarketa batekin azaldu egiten baitituzte justiziaren ekintza hobetzeko eta modernizatzeko garaian topatzen ditugun arazoak; nire burua zeharo identifikatuta eta inplikaturik ikusten dudan zeregina, lankidetzan aurrera eramaten duguna.

Liburuan –liburu bat baita– gizonezko eta emakumezko egileek parte hartu dute. Eta Konstituzio Auzitegiko magistratu Fernando Valdésen hausnarketa batekin amaitzen da, Konstituzioaren interpretazioari buruzkoa, enfasi berezia jarrita Auzitegiaren erabakien motibazioan eta ulergarritasunean, bere legitimazio sozialaren funtsezko elementu gisa.

Grand Place aldizkariak justiziari eskainitako 120 orrialdeetan, denak ez zaudete ados egongo bertan jasotako guztiarekin. Baina arrazoi onak aurkituko dituzue hausnarketa bat egiteko, zuen buruari galdera berriak egiteko, eta justiziari ikuspegi jori, plural eta konplexu batetik begiratzeko.

Eskerrik asko berriro eta zorionak aldizkarigatik.